

Zalditeria gorria



Zalditeria gorria

Jatorrizko izenburua:

Egilea: Isaac Babel

Itzultzailea: Olga Mtz. de Marigorta eta Roberto Serrano García

Argitaratze urtea: 2006

Argitaletxea: Alberdania&Elkar

MIKEL GARMENDIA

Miretsi egiten zituen kosakoak, miretsi zaldiak, ausardia, gogortasuna... Sentiberatasun berberarekin arbuizaten zituen, ordea, ankerkeria zentzugabea, bidegabekeria. Judua zen eta hori arazo bat zen kosakoen artean Zalditeria Gorriko kide izateko. Izan zen, hala ere, eta han ibili zen poloniarren aurka Semyon Budyonny jeneralaren aginduetara. Borgesen hitzetan esanda, "haren estiloaren musikak kontrastea egiten du hainbat eszenaren basakeria ia esan ezinekoarekin". Kosta egiten omen zitzaion idaztea, behin eta berriro idazten omen zituen esaldi eta pasarteak eta halakoxea ateratzen zuen emaitza, oso zaindua, oso landua. Izugarri zaindua da detaile bakoitza, deskripzioak bikainak dira eta hitzak ere banan-banan ondo aukeratuak, estetikak eta formak garrantzi handia hartzen dutelarik.

Gorkiren adiskide handia izateaz gain, begien bistakoa da haren eragina herri-ipuina tradizionalaren bidean. Hori bai, arestian esan bezala, estilo landuagoa dugu Babelena. Hain landua, hain neurtua non, diotenez, jendeak horietako narrazio batzuk buruz ikasi baitzituen, hala nola liburu honetako *Gatza* izenekoa.

Horretaz gain, etengabe azalduko zaigu liburua osatzen duten hogeita hamasei ipuin laburretan ahulenganako gupida eta, bereziki, emakumeenganakoa. Ez du modu nabarmenean egiten, zeharka edo iradokiz bezala baizik, eutsi egin behar baitio berak ere bere "kosakotasunari" eta, batez ere, disimulatu egin behar baitu bere judutasuna. Guztiarekin, eta gezurra badirudi ere, liburu honek, garai bateko epopeia izanik, ez zuen sekula argirik ikusi Errusian, nahiz eta artean errealismo sozialak guztiz antzutu gabea izan literatur errusiarra.

Hari berari jarraitzen badiote ere autonomotzat har dezakegu ipuin bakoitza. Altxor bat da alde horretatik, esan baitezakegu hogeita hamasei eleberri txikiz gozatzeko aukera eskaintzen zaigula liburu bakar batean.

Eta Isaac Babelek lan txukun eta patxadatsua egin bazuen, beste horrenbeste esango dugu Olga Mtz. de Marigorta eta Roberto Serrano itzultzaileek eskaini diguten bertsio txukun, landu eta zaindu honetaz. Benetako altxor bat daukagu bertsio honetan lexikoari eta adjektibazioari dagokienez. Hitzaurrea ere oso estimutan hartzekoa.